

**2017 BERDINTASUNERAKO EMAKUNDE SARIA
PREMIO EMAKUNDE A LA IGUALDAD 2017**

2018-04-24 Lehendakaritza 24-04-2018

Lehendakariaren hitzaldia-Discurso del Lehendakari

Eusko Legebiltzar buru andrea, zaudeten herri agintari eta herri ordezkari guztiok, Emakunderen ordezkariok eta zareten jaun andreak, arratsalde on.

Virginia Imaz, zorionak eta eskerrik asko gaur gurekin izateagatik baita zure familia osoarekin ere bai, eta zorionak zuk aipatutako guztiei.

Berdintasunaren bidea luzea da eta bide honetan bidelagun izan zaitugu Virginia. Aitzindaria izan zara. Gizarteak ez dira egun batetik bestera aldatzen zuk esan bezela, eta zure ekarpena aitortzen dugu gaurkoan. Eguneroko lana behar da gizarteak aldatzen jarraitzeko. Hori da zure eredua. Emakundek 30 urte bete ditu eta bide honetan herri honetako berdintasun politiken bultzatzailea izan da.

Gaur, egun egokia da Euskadiko Berdintasun Politikek orain arte egindako bidea goraiatzeko. Jaurlaritzak bide berriak eraikitzeke borondatea du. Izan ere, emakume eta gizonen arteko berdintasuna gure helburu estrategiko bat da eta.

Gauza asko aldatu dira hala ere, 30 urte hauetan. Administrazioan, berdintasunaren aldeko egiturak sendotu egin dira, gauzatu eta gorpuztu ere bai. Berdintasunak tresnak behar ditu aurrera egiteko, eta urte hauetan egindako lanari esker, gaur eskura ditugu hainbat tresna: 2005garren urtean onartutako Berdintasunerako Legea haien artean garrantzitsuenetako bat da.

Honekin batera, berdintasun politiken arkitektura eraiki da urte hauetan. Gaur Legea daukagu, berdintasunerako planak, erakundeen arteko koordinaziorako batzordeak, berdintasun unitateak edo teknikariak, eta badago honetan ere, ezer hobetzeko, jakina. Tresna horiek dira aurrerantzean gure gizartean Berdintasunak abiadura hartzeko erabiltzen jarraitu beharko ditugunak.

Hoy es el día de Virginia Imaz Quijera. Un ejemplo, una referencia, una persona pionera que ha creado y que ha abierto un camino. Todos estos años

Virginia ha sabido utilizar el humor con contenido y ha aportado su visión sobre la sociedad y, más específicamente, sobre la igualdad de mujeres y hombres. Virginia es un ejemplo de creación y de comunicación. A través del humor ha acompañado, ha liderado y ha socializado la igualdad. Ha sido una “compañera de viaje”, porque su trayectoria ha ido pareja a la evolución de las políticas de igualdad en Euskadi, como ella misma ha señalado.

También la igualdad ha conocido su propia creación durante estos 30 años. Uno de los logros de las políticas de igualdad vascas ha sido la construcción de una arquitectura y una planificación que se ha tratado de alinear con los desarrollos más avanzados en el ámbito europeo e internacional. Mejorable, pero ha hecho este trabajo también.

Virginia ha acertado a dibujar con humor esta arquitectura y su aportación ha sido útil para la socialización práctica de la causa de la igualdad.

Bide honetan, hilabete barru Berdintasunerako zazpigarren Plana aurkeztuko dugu. Plan gidari honen garrantzia azpimarratu nahi dut. Jaurlaritzaren sail ezberdinek, Foru aldundiek, udalek euren politikak ezartzeko duten ibilbide orria berdintasunerako plana. Helburu berdinekin ari gara lanean eta horrek herri ikuspegi bat ematen dio gure berdintasun politikei.

Termino así, en lo que es nuestra labor y responsabilidad institucional, con una referencia al séptimo plan de igualdad y a los seis anteriores, -y aquí estáis las directoras de Emakunde que habéis sido y a quienes os reconozco también toda vuestra dedicación, vuestra tarea, vuestro empeño en estos 30 años.- Quiero poner en valor la aportación de estos planes que nos permiten compartir estrategia y objetivos.

Esta estrategia ha permitido que se multiplique el impacto de las distintas acciones que se llevan a cabo y, sobre todo, nos permite hablar de unas políticas públicas de igualdad de país, de todo un país. La sociedad reclama -y somos conscientes de ello quienes tenemos una responsabilidad política institucional- más que nunca la igualdad entre mujeres y hombres, que hay una creciente demanda social a la que queremos dar respuesta.

Nos queda mucho por hacer y sabemos que debemos seguir caminando con una estrategia compartida, en la misma dirección, sumando y con mayor determinación. También de la mano de “compañeras de viaje” como Virginia que allanan el camino y lo hacen más atractivo.

Virginia, estoy seguro de que también en esta nueva etapa, seguiremos contando con tu particular visión crítica y constructiva. La visión que siempre nos has aportado, con humor y amor a la igualdad. Zorionak.